


LIBURU AURRERAPENA

JOAN MARI IRIGOIEN



Maitasunezko nobela batekin itzuli da Joan Mari Irigoien, maitasunaren gazi-gozaok baitakartza Elkar argitaletxearen eskutik plazaratu duen istorio eder honek: aldiz goxo eta aldiz garratzak dira pertsonaiei gertatzen zaizkienak, halakoxea baita bizitza bera ere, gogorra eta leuna, malkoa eta irria tartekatzen dituen. *Ipuin batean bezala*. Hona hemen pasarte bat.

Ipuin batean bezala

1981eko urtarrileko goiz hotz hartan, Altzako anbulatorioko egongela batean zegoen Sara Huarte, medikua noiz itzuliko zain, bere iragana oroitzen zuen bitartean: bere haurtzaroko egun zoriontsuak, jaiotetxean, aita Jaxinto eta ama Pantxikerekin, amona Doloresekin eta bere ahizpa gazte Karmelerekin, baina baita egun zoritxarrekoak ere, edozein gaitzen eraginpean egin zituenak bereziki, baita griperik arinenarekin ere, gaitzak sortzen zion egoera orokor tamalgarriaz gain, Erramun Ibargoinen herriko medikuaren injekzioen beldur izaten zelako; auzoan igarotako eskolako egunak, eta mojen ikastetxeak, nondik bota baitzuten, Formación del Espíritu Nacionalen *señoritari* azio sonatu hura egin ziolako; estudioak bukatu ondoren lanean hasi zen lehen eguna, eraikuntza enpresa batean, idazkari gisa; bere harremanak mutilekin: Edurekin... baina batez ere Sergiorekin eta Emmanuelekin, Granadako Alpujarretan, harik eta zorabio batean sartu zen arte, drogaz drogarako ibilaldian murgildurik.

Medikuarekiko hitzordua 10etan zuenez gero, hamarrek bost gutxitan zeharkatu zuen Sarak anbulatorioko ate nagusia, baina nola medikuak, bospasei minutu lehenago, dei larri bat izan baitzuen, ordubete atzerarazi zuena, ordubete egon behar izan zuen Sarak han, itxarongelan.

Zain zeudenen artean mota orotako jendea zegoen, batik bat adinekoa, gaztelaniaz mintzo ziren etorkinak gehienbat: protestatzen ez zutik agure-atsoak, bizitzan hamaika eskarmentu jaso eta jasan ondoren etsiak ziruditenak, baina baita protestatzen zutenak ere, ez dago eskubiderik, nork ordainduko dit neuri hemen galdu dudana ordua, beste kuku batek joko liguke orain, hauteskundeetan Carrillok irabazi izan balu...

Giro hartan, Sararen gogoak jauzi eta jauzi egiten zuen, bere iraganeko oroitzapenetatik inguruan ikusten zituen pazienteengana edo

haiek zituzten elkarrizketetara: beste neskekin txingoka ibiltzen zen garaiko pasadizoetatik honako agure zahar honen bronkitis kroniko ustezkora—ustezkoa baino gehiago ere bai, biriketako hauspotik ateratzen zitzaizkion hots eta ziztu disonanteen arabera, hats edo hitz egiten zuen bakoitzean—, agurearen bronkitis kronikotik mojen ikastetxera edo Alpujarretara, handik berriro itzultzeko andaluzar zirudien atso batek zuen arazo existentzial larrira, zeren esaten baitzuen lana besterik ez zuela egin, lana eta lana bizitza osoan, eta gizon eskegaitzakoak pairatu, hori okerrera...

Hartan ari zen, bada, atso andaluzar, hitz eta pitz, guztiek espero zuten sendagilea, Ander Olaso zeritzana, heldu zenean. Inori so egin gabe, galdutako denbora irabazi nahian-edo, medikua zuzenean sartu zen bere kontsulta-gelan. Haren zain zeudenez, aldiz, guztiek egin zioten so, baita Sarak ere, zeinari medikuaren aurpegia ezaguna egin baitzitzaion. Berandu gabe itzuli zen medikua, eskuan paper bat zuela. Emakume baten izen-deiturak irakurri zituen ozenki. Jarraian, lekutik altxatu eta barnera egin zuen atso andaluzar. Zertaz ezagutzen zuen, bada, Sarak medikua? Nola ezagutuko zuen, ordea, baldin eta Karmelek medikuari buruz eman zion informazioa egiazkoa bazen: «Urtebete zeraman Altzan. Añorgakoa dun, eta oso jatorra dun, ikusiko dun»? Halarik ere, Sarak ez zuen duda egin ezagun zuela, bistaz bederen. Izan ere! Orduantxe oharu baitzen bizpahiru egun lehenago ikusi zuela, aurreko igandean segur, Altzako plaza nagusiko etxe batean sartzen, Karmelek eta berak oliba batzuka eta edariak hartzen zituzten bitartean—Karmelek vermoutha, berak muztioa—, plazako tabernako kanpoaldeko mahai batean aulki banatan eserita, biak aurrez aurre. Anderrek itxura nahastezina baitzuen, sendagilea baino gehiago poeta bat iduri, bere betaurreko kris-

tal-lodi seinalatuekin eta bere zima luzearekin. Hasieran, egia esan, eskale bat zela iruditu zitzaion Sarari, baina ez zuen Karmelerekin hari buruzko iruzkinik egin: Karmelek Anderri bizkarra ematen ziolako eta hura ikusi ez zuelako, beharbada.

Orain bazekien, beraz, nondik ezagutzen zuen. Sarari, oharkabean, Donostiako *Tiffany's* diskotekan ezagutu zuen mutila etorri zitzaion gogora: Sergio. Ez Sergiok eta Anderrek elkarren antza zutelako, batere antzik ez zutelako baizik, batere zein bestearen gorputzek eredu estetiko antagonikoei erantzungo baliete bezala: Ander hezurretan zegoen, baldarra zen bere ibileran eta, bere despistatu itxura izugarriarekin eta bere bizkarrezur apur bat konkortuarekin, gizon babesgabe bat zirudien, orotara; Sergio, aldiz, mutil garaia zen, bular-tsua eta bizkarzuta, hainbat kirolotan ongi moldatzen zena; ilea motza eta kizkurra zuen, eta bel-beltza, begiak bezalaxe, printze mairu bat iduri. Malagatik Donostiara injinerutza ikastera etorrria eta Opuseko unibertsitatean matrikulatua, Malagako hotel-kate bateko nagusiaren semea zen Sergio, Donostian kolpe zorrik jo

gabe lau urte egin zituen eta karrera bigarren ikasturtean utzi zuena: atseginago izaten baitzuen, antza, Arnold Hausserren liburuak irakurtzea, edo Marcuserenak... edo Beatlesen diskoak erostea eta zinemara joatea, edo, besterik gabe, lagunekin Parte Zaharrean galtzea, pintxo batzuk jateko eta basoerdi bat edo beste hartzeko, aita bidaltzen zizkion diruak xahutuz, harik eta aita dirurik ez igortzea erabaki zuen arte. Ondoren, karrera bazter utzirik, soldadutzara joan zen, eta, lizentziatu bezain laster, Alpujarretara, aitarekin haserre artean ere.

Izan ere, pertsonen esparru psikologikoan, badira jende batzuk ereduaren alde hazten eta garatzen direnak, eta badira, aldi berean, ereduaren kontra hazten direnak. Sergio azken

hauetakoa zen. Esan nahi baita Sergiok aita zuela eredu, eta ereduaren kontra hazi zela. Guztiz haren kontra. Aita kapitalista zen, eta berak antikapitalistatzen zuen bere burua; aita burgesa zen, eta bera, antiburgesa; aita bere poltsikoan sinesten zuen, eta Sergiok printzipioetan; aita semea injineru nahi zuen, eta semeak laketago zituen artea eta artisautza. Eta denboraren hariak oihaltzen edo bat egin nahi zuen, xaloea eta xumea, artificio handirik gabekoa, bere bizitzaren isla izan zitekeena. Mutil aktiboa baitzen Sergio. Halako suertez, non gehiago sinesten baitzuen bere senen eta bere sentimenduetan, garunaren tolesduretatik iragazitako teoria elaboratuetan eta filosofia konplikatuetan baino. Eta, hitzez ez ezik, ekintzez ere nahi zuen, zerbait kreatiboa egin, zerbait erradikala. Horregatixe joan zen Granadako eskualde hartara, jakin zuenean bazela inguru hartan mugimendu alternatibo bat, gizartearen ohiko bizimoduarekin apurtu nahi zuena: batzuek hippyztatu zuten beren burua eta elkarrekin bizi ziren, komuna batean zein bestean; beste batzuek Mahomak predikatutako erlijioa eta islameko dotrinak hartu zituzten jarraibide eta ardatz, Granadako Erresuman mende batzuk lehenago izan zen bezala, errege katolikoek lur haiek konkistatu eta beren legea ezarri aitzin; hauek, berriz, gutxienak, sozialismo utopikoak bultzaturik bertaratu ziren; eta haiek, finean, Budaren irakaspenetatik abiatu ziren, beren eguneroko sufrimenduari erremedioa jarri nahian-edo.

Sergio itota bizi zen gurasoen munduan, baita Sara ere berenean, eta biek ala biek behar zuten aire berri bat. Ez komuna batean bizitzeko, argi eta garbi baitzuten bai Sergiok bai Sarak elkarrekin bizi nahi zutela, beren etxetxoan, hain baitzeuden maitemindurik, baina bai beren bizimodu propioari ekiteko, apaltasun handiz eta luxurik gabe. Familiak eta familia inguruak sortu ohi dituzten lotura guztiak hautsita. Eta haiekiko distantzia bat jarrita. Han, Alpujarretako mendietan. Libre.



IMANOL IRIGOIEN

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

70 x 70
4 MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: **76 €**
Astea (6 egun): **60 €**
2 aste (12 egun): **52 €**
Hilabetea (24 egun): **36 €**

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)
Eguna: **19 €**
Astea (6 egun): **15 €**
2 aste (12 egun): **13 €**
Hilabetea (24 egun): **9 €**

BIDEO KOPIAK
BIDEOGINTZA
LEHIZE EKOIZPENAK
IRRATIRAKO KUNAK ETA SOINUKETAK
Pagoaldea Pol. 48 z. 20180 OIARTZUN
tlf: 943491936 lehize@euskalnet.net

33 x 33 mm
MODULO
(Iparaldea)

Eguna: **14 €**
Astea (6 egun): **12 €**
2 aste (12 egun): **10 €**
Hilabetea (24 egun): **8 €**


ALTZAI (ZUBEROA)

Alokatzeko etxe bat,
6 persunarendako

Aste osoa: 230 €
Bi gau: 120 €
Hiru gau: 150 €
Lau gau: 180 €

Tel.: (33) 608005945

NAIROBITARRA



DEITU
670-029898
669-022215

EXTREMADURA, GAZTELA, ARAGOI
Natura, Paisaia, Ohiturak, Hiriak...

Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era
300 € (50.000 pta)